



Brouard kasua

## HB: «Brouard sumarioa ixtea GAL afera estaltzeko beste urratsa da»

Espainiako Gobernuari «arduragabekeria» leporatu dio Azkarragak

**H**Bk kritikatu egin zuen Brouard hilketaren sumarioa ixteko erabakia. Alderdi horren esanetan, afera oraindik hutsune handiak daude argitzeke, eta erabaki horren helburua «GAL afera estaltzeko beste urrats bat ematea» dela uste du.

BILBO

HBk «harrigarria» eritzi zion Bilboko instrukzioko 1. epaitegiko arduradunak hartutako erabakiari, «krimen honen erantzukizunen inguruan oraindik ere dauden hutsune handiengatik», atzo igorritako ohar baten bidez agertu zuen bezala.

Santi Brouard HBko buruzagia 1984eko azaroaren 20an hil zuten, Bilboko pediatria kontsultan ume bat zaintzen zegoela. Bi pertsona kontsultan sartu eta tirokatu egin zuten.

Sumarioa ixtea, «bakarrik uler daiteke Amedo eta Dominguez polizien epaiketan hasi zen prozesuan hasitako beste urrats bat bezala, eta helburua GAL afearen estaltzea da; estatu krimenak estali Estatuko aparatuek berauetan izan duten partehartzea izkutatzeke» uste du Herri Batasunak.

**IKERKETA BIDEAK AGORTU** Ikerketa bide guztiak agortzeko eskatu zuen Herri Batasunak, epai-




Jon Idigoras eta Joseba Azkarraga, HB eta EAko bozeramaleak.

keta hasi aurretik. Alderdiaren esanetan, horrela erabakiko litzateke «ustezko zuzenbideko Estatu hau gai dela bere erruak zuzentzeko».

Halere, HBk ukatu egin zuen Estatu espainiarraren «helburua eta izaera» direnik erru horiek zuzentzea. «Estatu espainiarra, gehiegikeria antidemokratikoz jositako historia izateaz gain, GALen krimen erantzule zuzena da» dio Herri Batasunak.

**EA: «GOBERNUA ARDURAGABEA»** Epaileek oztopo eta traba handiak aurkitu dituztela azpimarratu zuen Joseba Az-



karra Eusko Alkartasunako buruzagiak, epaileak sumarioa ixteko hartu duen erabakia baloratzerakoan. Horrek auzia izugarri nahasten duela uste du, «nahiz eta hilketa hauek argitzeko borondate ona izan daitekeen».

«Beraz ezin dut esan erabakia egokia izan den ala ez, baina ziurrenik erabaki hau hartu da beste aukerarik ez delako egon, batez ere gobernuaren arduragabekeria dela eta» adierazi zuen atzo Azkarragak.

«Arduragabekeria hori garbiago ikusten da gobernuak bastante gauza dituela ezkutatzeke jakinda, ez bakarrik Brouard kasuan, gerra zikinaren kate osoan baizik».

## Estatutuaren erdia garatzeko dagoela uste du Jaurlaritzak

GASTEIZ

«Autonomi Estatutuaren erdia garatzeko dago oraindik», Javier Balza, Gasteizko Jaurlaritzako Garapen Autonomikorako lehendakariordeak atzo adierazi zuenez.

Sail nagusiak, gobernu baten adierazgarri garbienak direnak, garatuta daudela uste du, hala nola, Hezkuntza, Polizia, Hazienda eta Osasuna. Gestio Administrazioa dagokionez berriz, Lan Hidraulikoak eta Portuak sailak berriz, erdi garatuak adierazi zuen. Ekonomikoki, erdia baino gehiago dago, Balzaren esanetan, garatuta. «Kontutan izan behar da Gizarte Segurantzak, INEM edo Justiziako langileen gestio ekonomikoa milioi pezeta askokoa dela» adierazi zion Vasco Press agentziari Garapen Autonomikorako lehendakariordeak.

Gasteizko Jaurlaritzaren ustez oraindik zintzilik dauden transferentziei buruzko txostena lantzen ari dela egunotan bere saila eman zuen jakitera Javier Balzak.

«Lan hau egiteko Lehendaritza, Erregimen Juridiko eta Garapen Autonomikorako sailak idatzi bat igorri die gainontzeko sailei, transferitzeko falta diren gaiak azaltzeaz gain, lehentasunak fin-

katzeko eskatzen zaie» azaldu zuen atzo Blazak.

Hilaren amaierarako bukatuta egotea espero den txosten honek bi helburu ditu bere esanetan. Barne ikuspegitik, eta koalizio gobernu berri bat dagoenez, arlo bakoitzean transferitzeko gelditzen diren gaien zerrenda egingo da. «Lehendaritza Sailak prozesu hori gidatzen badu ere eta Gobernu zentralarekiko negoziaketak eramateko ardura badu ere, ona da transferitzeko gelditzen diren gaiak sail guztien artean zehaztea» adierazi zuen lehendakariordeak. Bere sailak aurrerapena egingo du, eta hori gaurkotzea nahi dela azaldu zuen Balzak.

«Lehentasunak baloratzea da lan horrekin lortu nahi den gauzarik inportanteena» uste du. Administrazio zentralari begira berriz, «ze autonomia maila dagoen oraindik ere garatzeko» jakin nahi da. «Handia dela susmatzen dut nik, eta transferentzia asko dagoela oraindik zintzilik» gaineratu zuen Jaurlaritzako arduradunak.

«Ez da ahaztu behar —jarraitzen du— transferentziarik ez badago ez dugula ekintzarako esku librerik, eta Estatuari konpetentziak ordaintzen jarraituko dugula».

## Leizaolak gizona desagertua duen emakume baten alde eskatuko du

GASTEIZ

Joseba Leizaola, Gasteizko Legebiltzarreko lehendakariak Espainiako Erregeari eskatuko dio Mexicon desagertutako politikoa baten emaztearekin bil dadila. 1988tik desagertuta dagoen sindikalista baten emaztea da Ana Santander, eta Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordeak atzo onartu zuen idatzi bat igortzea Juan Carlos I erregeari, Felipe Gonzalez espainiar presidenteari, eta Francisco Fernandez Ordoñez Kanpo Arazoetako ministroari.

Ana Santanderrek orain gutxi eskatu zuen hiru instantzia hauekin elkarriketatzea Jose Ramon Garcia bere senarraren desagertutaren berri

emateko helburuarekin.

Garcia, UGTko buruzagi ohia, Partido Revolucionario de los Trabajadores alderdiko militantea da eta Frente Democratico Cardenista bultzatu zuen. Salinas de Gortarik Mexicoko lehendaritza kargua hartu ondoren, «bahitu» egin zuten Ana Santanderrek atzo azaldu zuenez, eta bertako agintariak gerrilarekin lotu nahi izan dutela gertaera gaineratu zuen.

Arabako Batzar Nagusiek desagertuta horri buruzko argibideak Mexicoko Gobernuari eskatzea erabaki zuten joan den irailean eta antzeko adierazpen bat egitea onartu zuten atzo Giza Eskubideen Komisionan.

## Saharan erreferendumik egiten ez uztea salatu zuen atzo EEK

BILBO

Euskadiko Ezkerrak Espainiako Gobernuaren eta Nazio Batuen Erakundearen «utzikeria» salatu zuen, Sahararen independentziari buruzko erreferendumari dagokionean. Alderdi honen esanetan, Hassan II Marokkoko erregeak agindua eman du NBeko ordezkariak Saharan sar ez dadin.

«Akdordio hauek betetzeko garrantzi berezia dauka Espainiako Gobernuaren lanak; Hassan IIari sinatu duena zorrotz botetzea exigitu behar

dio», adierazi zuen EEK atzo komunikabideetara igorritako ohar baten bidez.

Alderdi honek salatu egin zuen «nazioarteko bakearen usteko bermatzaileen» jarrera kontrajarria. Irakek «odol eta heriotzez» sartuta, Sahara herriaren kasuan ezer egiten ez delako.

Azkenik, Marokkoko «Gobernuak eta Poliziak egunez egun egiten duen tortura eta hilketa» salatu zuen Euskadiko Ezkerrak agiri honetan eta elkartasuna adierazi zion Herri Sahararrari.

Irurtzun-Andoain autobidea

## Lurraldeak zenbait itxialdi antolatatu du datorren astelehenean aurrera

DONOSTIA

Datorren astelehenean, Gipuzkoako Batzar Nagusiek autobidearen inguruan egingo duten osoko bilkurarekin batera, Lurraldea koordinakundeak «Egizue kasu herriari» kanpainaren bigarren faseari emango dio hasiera.

Kanpaina horren oinarria, Lurraldearen esanetan, «gizartearen akordio eta elkar ulertzearen aldeko borondatea nagusi dela eta datorren astelehenean Gipuzkoako Batzar Nagusietan kontsentsuaren bidea ixten dela egiaztatzean dago».

Lurraldeak antolatutako mobilizazioak ugari dira eta gehienak itxialdien bidez egingo dira. Datorren astelehenean, arratsaldeko laurutan, Batzar Nagusien osoko bilkurarekin batera, Lurraldea modu bakoitzuan Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiaren aurrean bilduko da.

Egun berean, azaroak 10, arra-

✓ Lurraldeako talde esanguratsu bat Ajuria Eneako Hitzarmena bildu osteko egunera arte itxiko da astelehenean Donostian.

tsaldeko 7.30etan Donostian ekintza ixila egingo da. Lehen egun horretan gizarte mugimendu horretako hainbat lagunek parte hartuko badu ere, talde esanguratsu batek Ajuria Eneako Hitzarmena bildu osteko eguna arte iraungo du itxialdiak.

Denboraldi horretan, gau bateko elkartasuneko itxialdiak egingo dira Euskal Herriko zenbait tokitan. Ajuria Eneako Hitzarmena biltzen den egunean berrituko egingo dira eskualdekako mobilizazioak.

Ajuria Eneako bileraren ondorengo ostiralean Euskal Herri osoan

egingo dira itxialdiak. Hauek hurrengo egunean amaituko dira Donostian azaroaren 11tik itxialdian daudenen irteera babesteko.

Lurraldeak mobilizazio hauen bidez «agerian utzi» nahi du «Batzar Nagusietako osoko bilkurak ez duela gatazka konpontzen, baizik eta larriagotzen».

**SINTRAGI KONTSENSUAREN ALDE** Sintragi (Gipuzkoako

Transportisten Sindikatua) Leitzarango autobidearentzat «irtenbide kontsentsuak» aurkitzearen aldeko agertu da, «denontzat onena izango delako». Sindikatu honek Gipuzkoako Diputazioaren eta Lurraldearen arteko elkarriketa bidea bultzatu behar dela uste du.

Atzo kaleratu zuen agirian, Gipuzkoan badela «lan horiek egiteko gai izango den» enpresarik azaltzen du Sintragi sindikatuak.